

EREI ELKARTEA

2023
MEMORIA



www.ereielkartea.org

ZER DA EREI?

EREI Elkartasunerako Elkartea esperientzia pertsonaletatik sortutako ekimen bat da, ezagututako errealitate migratzaileak medio, mundu-mailako justizia soziala bilatzen duen gizarte bateratu baten alde lan egiteko gogoarekin.

Migrazio-prozesuetan aurkitzen diren pertsonekin elkarlanean eta hauen parte hartze zuzenaren bitartez, mundu mailako desberdintasunak eta hauen ondorioak ezagutarazi eta giza eskubideak sustatzeko helburuarekin sentsibilizazio eta gizarte eraldatzeko heziketa jarduerak aurrera eramanez nahi ditugu EREIk. Gure ekimen eta elkarlanaren foku handi bat pertsona migratzaile eta errefuxiatuen errealitateetan dago.

Gure baloreak jarraituz, ikuspegi feminista, antiarrazista eta antikapitalista batetik lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

HURRENGO ORRIALDEETAN

EREI elkartea 2021. urtean eratu zen eta ordutik hainbat ekintza eramanez aurrera: Greziatik hasita, Europako harrera-herrialde nagusietan barrena (Alemania eta Frantzia), Euskal Herrira iritsi arte.

2023. urtean aurrera eramandako ekintza eta ekimenak laburbiltzen dira hurrengo orrialdeetan. Ekintza hauetatik gehiengoa Europan erbersteaz aurkitzen diren pertsona afganiarrek elkarlanean burutu dira. Hala ere, Oñatiko errealitate migratzaile batzuk batzen dituen podcastak ere argitaratu dira.

Alde batetik, herritarrei zuzendutako ekintzak nabarmentzen dira eta bestetik, hezkuntza arloan aurrera eramandako ekintzak. Gainera, denbora honetan EREI elkarteak egindako argitalpenak denon eskura jartzen dira. Azkenik, 2023. urteko balantze ekonomikoa ere partekatzen da.

¿QUÉ ES EREI?

EREI Elkartasunerako Elkartea es una iniciativa que nace de experiencias personales relacionadas con las realidades migratorias conocidas en primera persona, con el deseo de trabajar hacia una sociedad cohesionada que busca la justicia social a nivel global.

Con la colaboración y la participación directa de las personas que se encuentran en sus procesos migratorios, y con el objetivo de fomentar los derechos humanos y visibilizar las desigualdades que existen a nivel mundial y sus consecuencias, EREI quiere llevar a cabo actividades de sensibilización y educación para la transformación social. Nuestra iniciativa está principalmente enfocada en las realidades de las personas refugiadas y migrantes.

Siguiendo nuestros valores, nos comprometemos a trabajar desde una mirada feminista, antirracista y anticapitalista.

EN LAS PRÓXIMAS PÁGINAS

La asociación EREI se creó en el año 2021 y desde entonces ha llevado a cabo actividades que comenzaron en Grecia, transcurrieron a través de los principales países europeos de acogida (Alemania y Francia) y están llegando hasta el País Vasco.

En las próximas páginas se resumen las actividades e iniciativas llevadas a cabo por la asociación en el año 2023. La mayoría de estas actividades se han realizado junto con la participación directa de personas afganas que se encuentran en el exilio en Europa. Sin embargo, también se han publicado los podcasts que recogen algunas de las realidades migratorias de Oñati.

Por un lado, se destacan las actividades dirigidas a la ciudadanía y por otro lado, las actividades realizadas en el ámbito de la educación. Además, se comparten las publicaciones que ha elaborado EREI en este tiempo, así como el balance económico del año 2023.

AURKIBIDEA | ÍNDICE

HERRITARREKIN CON LA CIUDADANÍA

"THE BOAT" antzezlanak	6	Teatro "THE BOAT"
Europako asilo prozesuaren inguruko hitzaldi-solasaldia	7	Charla-coloquio sobre los retos del proceso de asilo en Europa

HEZKUNTZA EDUCACIÓN

Antzerki tailerra Yadullah Mousawi aktore eta zuzendari afganiarraren eskutik	9	Taller de teatro de la mano del actor y director afgano Yadullah Mousawi
Giza eskubideen inguruko hartu-emanak ikasleekin Masume Husseiniren eskutik	10	Intercambio con el alumnado sobre los Derechos Humanos de la mano de Masume Hussein
Migrazio testuinguruaren ekimenen inguruko hartu-emanak Iman Alidoostiaren eskutik	11	Intercambio acerca de iniciativas en los contextos migratorios de la mano de Iman Alidoosti
Europako asilo prozesuaren erronken inguruko solasaldiak	12	Coloquios sobre los retos del proceso de asilo en Europa
Greziako errealitate migratzaileen inguruko solasaldiak	13	Coloquios sobre las realidades migratorias en Grecia

ARGITALPENAK

PUBLICACIONES

ERREALITATE MIGRATZAILEAK EZAGUTZEN podcasta	15	Podcast CONOCIENDO REALIDADES MIGRATORIAS
Asilo prozesuaren erronkak Europako harrera-herrialde nagusietan	16	Los retos del proceso de asilo en los principales países europeos de acogida
Erbestean dauden emakume afganiarren ahotsak	17	Voces de mujeres afganas en el exilio

BALANTZE EKONOMIKOA

BALANCE ECONÓMICO

Diru sarrerak 2023	19	Ingresos 2023
Gastuak 2023	20	Gastos 2023

HERRITARREKIN CON LA CIUDADANÍA





"THE BOAT" ANTZEZLANA

Zuzendari iraniarra den **Iman Alidoosti** Grezian zuzendutako "The Boat" antzezlanaren emanaldiak eraman ditugu aurrera Oñatiko **Eltzia kultur espazioan** eta **Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan**.

Emanaldiaren ondoren, **Iman Alidoosti** zuzendariarekin eta antzezlanean parte hartzen duen **Masume Husseini** aktore afganiarrarekin solasaldi bat eraman genuan aurrera. Biak egon ziren zuzenean herritarrekin Oñatin eta Hernanin.

Certuratutako guztiekin "The Boat" antzezlanaren eraketa prozesua elkarbanatzeaz gain, **Masume** eta **Imanek** Grezian pertsona migratuek bizi duten errealitatearen inguruan ere hitz egin zuten. Solasaldi oso interesgarria sortu zen herritarrekin eta bai **Iman** eta baita **Masume** ere bertan egoteak asko aberastu zituen saioak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko udaleko dirulaguntzaren bitartez eraman ziren aurrera ekintzak.

TEATRO "THE BOAT"

La obra de teatro "The Boat", dirigida por el director iraní **Iman Alidoosti** en Grecia, ha sido proyectada en el **espacio cultural Eltzia de Oñati** y en **Kulturarteko Plaza Feminista en Hernani**.

Tras la proyección, se llevó a cabo un coloquio con el director **Iman Alidoosti** y una de las actrices participantes en la obra: la afgana **Masume Husseini**. Ambas estuvieron presentes tanto en Oñati como en Hernani.

Además de compartir con todo el público el proceso de creación de "The Boat", **Iman** y **Masume** hablaron de la situación de las personas migradas en Grecia. Se creó un coloquio muy interesante con el público y fue muy enriquecedor que ambos estuvieran presentes en los eventos.

Estas actividades se realizaron gracias a la subvención de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del ayuntamiento de Oñati.



EUROPAKO ASILO PROZESUAREN ERRONKEN INGURUKO HITZALDI- SOLASALDIA GENERO IKUSPUNTU BATETIK

Europako harrera herrialde nagusietan asilo prozesuaren erronkak batzen dituen ikerketa lanaren emaitzak partekatu genituen Donostiako Okendo Kultur Etxean. Ikerketa lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaren bitartez eraman genuen aurrera.

Ikerketa lana aurrera eramateko hainbat elkarrizketa burutu genituen Frantzia eta Alemanian, Europako harrera herrialde nagusietan, hain zuzen ere. Tahere eta Yadullah afganiarrek elkarrizketetan hartu zuten parte eta Donostian aurrera eramandako solasaldian egon ziren online Alemania eta Frantziatik. Beraien esperientzia eta gogoetez gain, beraien proiektu eta aktibismoak ere partekatu zituzten. Oso hartu-eman interesgarria sortu zen hauen eta ekitaldira gerturatu ziren pertsonen arten.

CHARLA-COLOQUIO SOBRE LOS RETOS DEL PROCESO DE ASILO EN EUROPA DESDE UNA PERSPECTIVA DE GÉNERO

Compartimos los resultados del trabajo de investigación sobre los retos del proceso de asilo en los principales países europeos de acogida en la Casa de Cultura Okendo en Donostia. Este trabajo de investigación lo realizamos gracias a la financiación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Para llevar a cabo el trabajo de investigación realizamos varias entrevistas en Francia y Alemania, los principales países europeos de acogida. Tahere y Yadullah participaron en las entrevistas y estuvieron en directo online en el coloquio desde Alemania y Francia, respectivamente. Compartieron sus experiencias y reflexiones, así como sus proyectos y activismos, y surgió un intercambio interesante junto con las personas que se acercaron al evento.

HEZKUNTZA EDUCACIÓN





ANTZERKI TAILERRA YADULLAH MOUSAWI AKTORE ETA ZUZENDARI AFGANIARRAREN ESKUTIK

Yadullah Mousawi aktore eta zuzendari afganiarra Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxean egon zen DBH 1-eko ikasleekin. Bertan, testuinguru migratzaileetako giza eskubideen inguruko antzerki tailer bat eraman zuen aurrera.

Tailerrean erabilitako metodologia oso dinamiko eta partehartzailea izan zen eta ikasleek antzezlan txiki bat egin zuten taldeka. Gainera, ikasleak testuinguru migratzaileetara gerturatu eta giza eskubideak jorrazteko helburua zuten hainbat ariketa egin ziren.

Ekintza hau Oñatiko udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntzen bitartez eraman genuen aurrera.

TALLER DE TEATRO DE LA MANO DEL ACTOR Y DIRECTOR AFGANO YADULLAH MOUSAWI

El actor y director afgano Yadullah Mousawi estuvo en el centro educativo Elkar Hezi Ikastetxea en Oñati con el alumnado de 1ºESO facilitando un taller de teatro acerca de los derechos humanos en los contextos migratorios.

La metodología empleada en el taller fue muy dinámica y participativa, con una pequeña actuación por grupos por parte del alumnado. Además, se emplearon ejercicios para acercar al alumnado al contexto migratorio y abordar el tema de los derechos humanos.

Esta actividad se llevó a cabo gracias a la financiación del ayuntamiento de Oñati y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



GIZA ESKUBIDEEN INGURUKO HARTU-EMANA IKASLEEKIN MASUME HUSSEINI-REN ESKUTIK

Masume Husseinik nerabeei zuzendutako bi tailer eraman zituen aurrera Oñatiko Txantxiku Ikastolan.

Masume emakume afganiarra da eta lau urte baino gehiago daramatza Grezian bizitzen. Hau dela eta, tailerra argazki eta bideoz osatutako aurkezpen batekin hasi zen eta bertan pertsona errefuxiatu eta emakume bezala Europara iristean bizitakoak elkarbanatu zituen.

Masumek giza eskubideen eta emakumeen eskubideen inguruko galdera batzuk proposatu zizkien ikasleei eta hauek migrazioa eta giza eskubideen inguruko ikerketa lantxo bat ere burutu zuten.

Ekintza hau Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko udaleko dirulaguntzen bitartez eraman genuen aurrera.

INTERCAMBIO CON EL ALUMNADO SOBRE LOS DERECHOS HUMANOS DE LA MANO DE MASUME HUSSEINI

Masume Husseinik facilitó dos talleres dirigidos a adolescentes en el centro educativo Txantxiku Ikastola en Oñati.

Masume es una mujer afgana que lleva viviendo más de cuatro años en Grecia. Por ello, el taller comenzó con una presentación de fotografías y videos donde se mostraban sus vivencias como persona refugiada y como mujer a su llegada a Europa.

Masume propuso al alumnado unas preguntas acerca de los derechos humanos y los derechos de las mujeres, así como un trabajo de investigación acerca de la migración y los derechos humanos.

Esta actividad se llevó a cabo gracias a la financiación del ayuntamiento de Oñati y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



MIGRAZIO TESTUINGURUETAKO EKIMENEN INGURUKO HARTU-EMANA IMAN ALIDOOSTI-REN ESKUTIK

“The Boat Collective Art Center”-eko sortzailea den **Iman Alidoosti** iraniarrak beraien proiektu ekintzailea aurkeztu zuen **Mondragon Unibertsitateko Oñatiko Enpresagintza Fakultateko LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko ikasleekin**. Proiektu hau migrazio testuinguruan sortutakoa da eta balio sozial eta inklusiboak ditu.

Gainera, Imanek errealitate migratzaileak eta testuinguru migratzaileetako giza eskubideen urraketak ikusarazi zituen, emakumeen egoeraren inguruan sakonduz. Ikasleekin hartu-eman interesgarri eta aberasgarri bat sortu zen.

Ekintza hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñatiko udaleko dirulaguntzen bitartez eraman genuen aurrera.

INTERCAMBIO ACERCA DE INICIATIVAS EN LOS CONTEXTOS MIGRATORIOS DE LA MANO DE IMAN ALIDOOSTI

El fundador de “The Boat Collective Art Center” **Iman Alidoosti** presentó su proyecto emprendedor con valores sociales e inclusivos creado en los contextos migratorios al alumnado del grado LEINN (Liderazgo Emprendedor e Innovación) en la Facultad de Empresariales del Campus de Oñati de **Mondragon Unibertsitatea**.

Además, Iman visibilizó las realidades migratorias y la vulneración de los derechos humanos en los contextos migratorios, haciendo hincapié en la situación específica de las mujeres, creando un intercambio interesante y enriquecedor con el alumnado.

Esta actividad se llevó a cabo gracias a la financiación del ayuntamiento de Oñati y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



EUROPAKO ASILO PROZESUAREN ERRONKEN INGURUKO SOLASALDIAK

Europako harrera-herrialde nagusietan asilo prozesuaren erronkak genero ikuspuntu batetik ikusarazteko helburuarekin, hainbat esku-hartze eraman genituen aurrera bigarren hezkuntzako ikasleekin.

Esku-hartze hauetan **“Asilo prozesuaren erronkak Europako harrera-herrialde nagusietan: jatorria eta erantzunak”** ikerketa lanaren emaitzak partekatu genituen ikerketa prozesuan parte hartutako pertsona migratuekin elkarlanean.

Harrera-herrialdeetako erronkak partekatzeaz gain, jatorrizko herrialdeetako errealitateak eta erronkei emandako erantzunak ere elkarbanatu zituzten online ikasleekin egon ziren eta ikerketa lanean parte hartu zuten pertsonak: Frantziatik konektatu ziren **Yadullah** eta **Sultan** afganiarrak eta Alemaniatik **Zahra** afganiarra.

Esku-hartze hauek Oñatiko Txantxiku Ikastolan eta **Elkar Hezi Ikastetxean**, **Beasain Institutuan** eta **Errenteriako Orereta Ikastolan** eraman genituen aurrera eta guztira 440 ikaslek hartu zuten parte.

Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntzaren bitartez eraman ziren aurrera ekintza hauek.

COLOQUIOS SOBRE LOS RETOS DEL PROCESO DE ASILO EN EUROPA

Con el objetivo de visibilizar los retos del proceso de asilo en los principales países europeos de acogida desde una perspectiva de género, llevamos a cabo varias intervenciones educativas con el alumnado de educación secundaria.

En estas intervenciones compartimos los resultados del trabajo de investigación **“Los retos del proceso de asilo en los principales países europeos de acogida: origen y respuestas”**, a través del trabajo conjunto con las personas migradas que participaron en el proceso de investigación.

Además de compartir los retos en los países de acogida, las personas participantes en el proceso de investigación también compartieron las respuestas que se dan a estos retos y la realidad en los países de origen. Se conectaron online los afganos **Yadullah** y **Sultan** desde Francia y la afgana **Zahra** desde Alemania.

Estas intervenciones se llevaron a cabo en **Txantxiku Ikastola** y **Elkar Hezi Ikastetxea** de Oñati, en el **Instituto Beasain** y en **Orereta Ikastola** de Errenteria. En total participaron 440 alumnos y alumnas.

Estas actividades se realizaron gracias a la subvención de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



GREZIAKO ERREALITATE MIGRATZAILEEN INGURUKO SOLASALDIAK

Greziako errealitate migratzaileak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko esku-hartzeak eraman ditugu aurrera hezkuntzarloan, asilo prozesuetan aurkitzen diren pertsonen parte-hartze zuzenarekin eta genero ikuspuntu batetik.

Esku-hartze hauetan 2022. urtean aurrera eramandako ikerketa lanaren emaitzak partekatu genituen ikasleekin eta ikerketa lanean parte hartu zuten pertsona desberdinak izan ziren online.

Errenteriako **Orereta Ikastolan** eta **Beasain Institutuan** eraman genituen aurrera esku-hartzeak bigarren hezkuntzako ikasleekin eta guztira 302 ikaslek hartu zuten parte.

Afganiarrak diren **Fereshte, Zahra** eta **Sultan** eta Irakeko Kurdistangoa den **Payman** egon ziren online ikasleekin Greziako errealitate migratzaileen nondik-norakoak azaltzen ikasleei. Solasaldi interesgarriak sortu ziren hauen artean.

Ekintza hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaren bitartez eraman genuen aurrera.

COLOQUIOS SOBRE LAS REALIDADES MIGRATORIAS EN GRECIA

Con el objetivo de visibilizar y sensibilizar sobre las realidades migratorias en Grecia, llevamos a cabo intervenciones educativas con la participación de personas que se encuentran en sus procesos de asilo y desde una perspectiva de género.


En estas intervenciones presentamos los resultados del trabajo de investigación realizado en el año 2022 y las personas que participaron en el proceso de investigación estuvieron presentes de forma online.

Estas actividades se realizaron en **Orereta Ikastola** de Errenteria y en el **Instituto de Beasain** con el alumnado de educación secundaria y participaron 302 alumnas y alumnos.

Participaron de forma online las afganas **Fereshte** y **Zahra**, el afgano **Sultan** y **Payman**, que proviene del Kurdistán iraquí. Compartieron los pormenores de las realidades migratorias de Grecia y surgió un coloquio muy interesante con el alumnado.

Esta actividad se llevó a cabo gracias a la financiación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

ARGITALPENAK PUBLICACIONES





ERREALITATE MIGRATZAILEAK EZAGUTZEN PODCAST-A

"Errealitate Migratzaileak Ezagutzen" podcastak Oñatin bizi diren pertsona errefuxiatu eta migratzaileen ahotsak euskaraz (itzulita) eta gazteleraz (ahots originalak) jasotzen ditu. Bertan, pertsona migratzaileen errealitateak partekatzen dira lehenengo pertsonan, beraiek bizitako esperientzietan oinarrituta, eta genero ikuspegi batetik. Migrazio-prozesuetan pairatzen diren giza eskubideen urraketari buruz ere hitz egiten dute.

Podcast hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñatiko Udalaren finantzaketari esker, eta Oñati Irratiaren laguntzarekin ekoitzi dugu.

[Ep.01 - Gabriela](#)

[Ep.02 - Alain](#)

[Ep.03 - Sadia](#)

PODCAST CONOCIENDO REALIDADES MIGRATORIAS

El podcast "Conociendo Realidades Migratorias" recoge las voces de personas refugiadas y migradas que viven en Oñati en castellano (voces originales) y en euskera (traducción). En estos podcasts se comparten las realidades de las personas migradas en primera persona, basadas en sus propias experiencias y desde una perspectiva de género. También hablan sobre las vulneraciones de los derechos humanos que se viven en los procesos migratorios.

Hemos producido este podcast gracias a la financiación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del ayuntamiento de Oñati y con la ayuda de Oñati Irratia.

[Ep.01 - Gabriela](#)

[Ep.02 - Alain](#)

[Ep.03 - Sadia](#)



ASILO PROZESUAREN ERRONKAK EUROPAKO HARRERA-HERRIALDE NAGUSIETAN

Europako harrera-herrialde nagusietako asilo prozesuaren erronkak genero ikuspuntu batetik ezagutarazteko helburuarekin ikerketa lan bat eraman dugu aurrera. Lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiko finantzaketaren bitartez burutu dugu.

Ikerketa lan hau aurrera eramateko 18 pertsona elkarrizketatu genituen: 10 emakume eta 8 gizon. Hauek Afganistan, Iran, Kurdistan, Mali eta Keniatik etorritakoak dira eta beraien asilo prozesuetan murgilduta daude Alemania eta Frantzia, hots, Europako harrera-herrialde nagusietan.

Ikerketa lan honetan elkarrizketatutako pertsona migratuen jatorrizko herrialdeetako errealitateak ere ezagutarazi ditugu, migrazio fluxuen atzean dauden arrazoiak hobeto ulertzeko helburuarekin. Gainera, asilo prozesuaren erronkei ematen zaizkien erantzunak ere bistaratu ditugu: aktibismo eta proiektu desberdinak hain zuzen ere.

2023ko urtarrila eta ekaina artean burututako ikerketa lanaren emaitzak txosten baten batu eta argitaratu ditugu: [euskaraz](#), [gazteleraz](#) eta [ingelesez](#).

LOS RESTOS DEL PROCESO DE ASILO EN LOS PRINCIPALES PAÍSES EUROPEOS DE ACOGIDA

Con el objetivo de conocer y visibilizar los retos del proceso de asilo en los principales países europeos de acogida desde una perspectiva de género, hemos llevado a cabo un trabajo de investigación cofinanciado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Para llevar a cabo este proceso de investigación entrevistamos a 18 personas, 10 mujeres y 8 hombres provenientes de Afganistán, Irán, Kurdistan, Mali y Kenia. Estas personas se encuentran en sus procesos de asilo en Alemania y Francia, que son los principales países europeos de acogida.

En este trabajo de investigación también socializamos las realidades de los países de origen de las personas migradas entrevistadas para entender mejor las razones que están detrás de los flujos migratorios. Asimismo, dimos a conocer las respuestas que se dan a los retos del proceso de asilo en forma de activismos y diversos proyectos.

Los resultados de la investigación llevada a cabo entre enero y junio del 2023 han sido recopilados y publicados en un informe: en [euskera](#), [castellano](#) e [inglés](#).



ERBESTEAN DAUDEN EMAKUME AFGANIARREN AHOTSAK

Europako harrera-herrialde nagusia den Alemanian prozesu migratzaileetan aurkitzen diren emakumeak protagonista dituzten lau bideo labur grabatu, editatu eta argitaratu ditugu.

Bideo hauen bitartez, modu zuzen eta dinamiko baten prozesu migratzaileen inguruko hausnarketa eta informazioa heralazi dira, genero ikuspuntu baten bitartez.

Hauek izan dira grabatutako eta argitaratutako bideoen euskarazko bertsiok:

1. Emakumeak Afganistan eta Iranen. Alemanian bizi diren errefuxiatu afganiarren ahotsak.
2. Europara iristea Greziatik.
3. Asilo-eskatzaileen egoera eta erronkak Alemanian.
4. Erbestean dauden emakumeen aktibismoak eta proiektuak.

VOCES DE MUJERES AFGANAS EN EL EXILIO

Hemos grabado, editado y publicado cuatro vídeos cortos protagonizados por mujeres afganas que se encuentran en sus procesos migratorios en Alemania, el principal país europeo de acogida.

A través de estos vídeos se transmiten de una forma directa y dinámica y desde una perspectiva de género reflexiones e información sobre los procesos migratorios.

Estas son las versiones en castellano de los vídeos grabados y publicados:

1. Mujeres en Afganistán e Irán. Voces de refugiadas afganas que viven en Alemania.
2. Llegar a Europa a través de Grecia.
3. Situación y retos como solicitante de asilo en Alemania.
4. Activismos y proyectos por mujeres en el exilio.

BALANTZE EKONOMIKOA

BALANCE ECONÓMICO



DIRU SARRERAK 2023

2023. urtean EREI Elkartasunerako Elkarreak izan duen diru sarrera 29.787,80€-tako izan da.

Diru sarrera honen %94a finantzaketa-iturri publikoen bitartez lortu dugu, 27.902,80€ hain zuzen ere: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Oñatiko udala.


Diru sarreraren %6a aldiz (1.885€) finantzaketa-iturri propioen bidez lortu dugu, donazioen, elkartasun yoga saioen, poltsen salmentaren eta EREI elkartearen ekarpen propioaren bitartez.

INGRESOS 2023

Los ingresos que ha obtenido EREI Elkartasunerako Elkarrea en el año 2023 han sido de 29.787,80€. El 94% de estos ingresos se han obtenido a través de fuentes de financiación públicas, 27.902,80€: la Diputación Foral de Gipuzkoa y el ayuntamiento de Oñati.


El 6% de los ingresos (1.885€) se han obtenido mediante fuentes de financiación propias: donaciones, sesiones de yoga solidario, la venta de bolsas y el aporte propio de la asociación EREI.

Finantzaketa-iturri publikoak
27.902,80€



Fuentes de financiación públicas
27.902,80€

Finantzaketa-iturri propioak
1.885€



Fuentes de financiación propias
1.885€

GASTUAK 2023

EREI Elkartasunerako Elkarateak 30.160,10€-tako gastua izan du 2023. urtean. Gastu hauen %99a elkarateak aurrera eramaten dituen proiektu eta ekintzak garatzeko bideratu da: 29.895,20€.

Proiektu eta jarduerak aurrera eramateko EREI elkarateak bi emakumez osatutako lan-talde profesionala dauka. Langile gastuak 20.953,85€-takoak izan dira 2023an. Gastu hauetatik 17.492,97€ nominak ordaintzeko erabili dira eta 3.460,88€ aldiz gastu sozialak ordaintzeko.

Gastu totalaren %0,88a aldiz (264,90€), erakundea mantentzeko gastuei aurre egiteko erabili da, hau da, erakundearen gastu administratiboak ordaintzeko.


GASTOS 2023

EREI Elkartasunerako Elkaratea ha tenido un gasto de 30.160,10€ en el año 2023. El 99% de estos gastos se han empleado para desarrollo de los proyectos y actividades que lleva a cabo la asociación: 29.895,20€.

Para la realización de los proyectos y actividades, la asociación EREI cuenta con un equipo profesional de dos mujeres. Los gastos del personal han sido de 20.953,85€ en el 2023. Estos gastos se desglosan en 17.492,97€ para el pago de nóminas y 3.460,88€ para el pago de los gastos sociales.


El 0,88% de los gastos totales (264,90€) se ha empleado para hacer frente a los gastos de mantenimiento de la asociación, es decir, para el pago de los gastos administrativos de la asociación.

Proiektuak eta ekintzak garatzea
29.895,20€



Desarrollo de proyectos y actividades
29.895,20€

Erakundearen gastu administratiboak
264,90€



Gastos administrativos de la asociación
264,90€

INFORMAZIO GEHIAGO

Edozein galdera edo iradokizun baldin badaukazu, boluntario edo bazkide izan nahi baduzu, edota gure lanean sinesten baduzu eta zure ekarpenaren bitartez gure proiektuak babestu nahi badituzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:

info@ereielkartea.org
www.instagram.com/erei.elkartea/
www.facebook.com/erei.elkartea/

MÁS INFORMACIÓN

Si tienes cualquier pregunta o sugerencia, si te gustaría ser socia o voluntaria, o si crees en nuestro trabajo y a través de tu aportación quieres apoyar nuestros proyectos, ponte en contacto con nosotras:

info@ereielkartea.org
www.instagram.com/erei.elkartea/
www.facebook.com/erei.elkartea/



www.ereielkartea.org